

# Su-etena eta prentsa

• JOXE AZURMENDI •

[FILOSOFIA ETA IDAZLEA]

**S**u-etenak aro berri bat ireki du, aro inportante bat. *ETA-ren erabakiak esanahi historikoa* du, baina dena ez doa ondo. Are, zerbait oso gaizki doa. Urte bat pasata, denok badaukagu kezka handi bat: informazioarena; prentsa, irrati, telebisten manipulazioarena, edo treguarik gabeko gerra mediatiko etengabearena, nahi duzuen bezala esan.

## Problema bat da

Zergatik? Beharbada ez da lekuz kanpo egongo, bigarren Mundu Gerraren bukaeran, Albert Camus frantses idazleak, gero Nobel Saria izango zenak, prentsa libreaki buruz oraindik gerra bukatu baino lehen egin zituen gogoeta batzuk gogoratzea. Frantzia orduantxe ari ziren mugako azken hiriak nazien okupaziotik liberatzen; *prentsa librea* indartsu sortzen ari zen Frantzia berrian. Camus literatoa baino lehen kazetaria izan da, Erresistentzian, kazetari klandestino. Beraz, isilpeko kazetari sakrifizioak, arriskuak, bakardadea gogoratzen ditu; h<sup>2</sup>ek amestu duten prentsa librea nolakoa zen gogoratzen du. Prentsak —esaten du— ez dauka berriro gerra aurreko Errepublikan ustelean bezalakoa izaterik. Gerra aurreko prentsak bere printzipioak eta moralak galduak zituen. Ez zuen batzuen boterea handitzea eta guztien moralak kakaztea beste eginbeharririk eta idealik. Negozio bat zen, kito. Diruaren gosea zen nagusi eta balio ororekiko indiferentzia. Prentsa hori oso erraz bilakatu da —dio Camusek—, 1940 eta 44 artean bilakatu dena: *nazioaren lotsa*, h. d., Vichyko eta Pariseko prentsa neutral, objektibo, h. d., kolaborazionista. Beraz, orain —darrai Camusek— liberazioak, prentsaren liberazioa ere dirugosetik eta interes zikinetatik ekarri

beharko du, egiazko informazio kritikoa erbitzuan egoteko. *Nazio baten ahotsa bere kazetak direla* egia bada —idazten du—, gure herriaren mintzoa duintasunera jaso beharra daukagu.

Mundu Gerrako esperientzia ikaragarriaren ondoren, buru guztietan lehengoa ez bezalako mundu berri bat eraikitzeko asmo sendoa zegoen. Kazetaritza berria *kazetaritza kritiko*a izatea (autokritikoa ere bai) espero zuen Camusek. Laster ikusi behar izan zuen, zoritxarrez, mundu berrian prentsa zaharra berritzen zela: bere interesekin, fribolitategin, merkaturak irabazteko mekanismo guztiekin. Informazioaren askatasuna, lukainken merkatu askatasuna, bihurturik dago eta ez da beste ezer, salbu kasuan produktua sakratutasun mito batekin estaltzen dela, giza eskubide naturalen santutasunaren izenean. Camusek protestatzen jarraitu du. Eta alfer-alferrik jarraitu du protestatzen. Beraz, guk ez dugu protestatuko, frankismoaren ondoko prentsa, kasu honetan ez frankismoaren aurrekoa edo garaikoa bezalakoxea, baizik frankismoaren garaiko berbera bada askotan, edo ia berdin-berdina beste batzuetan.

## Euskaldunak eta informazioa

Aspaldiko problema dugu euskaldunok informazioarekin. Unamunok, *Paz en la guerra* nobelan —ehun eta gehiago urte, beraz!—, gerra hartan prentsak jokatu zuen paper xaxatzailea behin eta berriz aipatzen du. «*Un inmenso clamoreo de odio*» altxatu bide zuten kazetek Espainia osoan euskaldun karlisten kontra. «*Pedían muchos que se arrasara a sangre y fuego el país vasco, que se acabase de una vez con aquella casta levantisca*». Kubako gerran ere, kazeta espainolak fanatismo nazionalistaren eta «*patriotería hipócrita*

ren prentsa besterik ez direla salatzen segitu du Unamunok. «*La prensa de la mentira*» eta kazetari espainolen «*patriotería nacionalista burguesa*», esaten du berak.

Urteak geroago, beti berdin, Jose Antonio Agirre Lehendakariak Errepublikako prentsa salatzen du. Ez uste gero, Errepublikan abertzaleak atxilotzen eta torturatzen ez zirenik! «*Y la prensa, kexatzen zen alferrik Jose Antonio Agirre —¡oh! serenísima prensa— que no registra en sus columnas una protesta, ni una advertencia siquiera ante tanto atropello contra la dignidad humana...*». Abertzaleei egurra demokratikoki emateak ez du kezkatzen prentsa espainolaren kontzientzia errepublikanoa. Edozein astakeria eginda ere, prentsak dena barkatzen du.

## Gure historia horixe da

Ikasiko ote dugu? Agudo ikasi beharra daukagun gauza bat esparru mediatikoan geure ahotsarekin presente egotea da, gure ikuspuntua eta gure interesak geuk azaltzeko. Egunoro ikusten dugu, dominazio eta menperaketa forma moderno gaiztoenetako bat, efikazenetako bat, mingarrienetako bat, kazeta irrati telebista kateen informazioko menperaketa dela. Baina hor, geure errua ez da txikia.

Nork bere ahotsa edukitzea pixka bat libre izatea da. Egia bada nazio baten ahotsa, Camusek dioen legez, bere prentsa dela, betirako herri mutu eta ahotsik gabekoa izan nahi ez badugu, geure nazioaren ahotsa izango den prentsa behar dugu lehenbailehen. Bitartean, behin eta berriz ahots hori izaten saiatzeagatik, eskerrik asko EGUNKARIARI.

---

'Su-etenaren apustua' liburuaren aurkezpenean irakurritako testuaren moldaketa

---